IN THE NAME OF BLOOD

# Las soleadas calles de Niza son testigo de una oscura y vertiginosa venganza familiar

IRATXE MARTÍNEZ

Las calles de Niza no esconden secretos para Akaki Popkhadze, un director georgiano que lleva ya veinte años viviendo en la ciudad francesa y que llega a San Sebastián por primera vez para el estreno mundial de su película *Brûle le sang / In the Name of Blood*.

El primer largometraje de Popkhadze es un thriller intenso y trepidante lleno de giros que mantendrán en vilo al espectador exactamente hasta el último minuto de la cinta. Ni uno menos. Las idílicas calles de Niza, sus cielos azules y los paseos bajo el sol son testigos de un asesinato que desata una venganza feroz y de la que poca gente se acaba librando, principalmente porque, al igual que ocurre en Donostia-San Sebastián y como dicen en el film, "Niza es un pueblo: todo el mundo conoce a todo el mundo".

El asesinato que es el detonante de esta historia también fue el detonante en la realidad para inspirar el guion que escribió Popkhadze junto con el guionista y también actor protagonista de la cinta Florent Hill. "Florent y yo estábamos en Niza y leímos en el periódico que habían asesinado a una persona creyendo que era otra. Nos impactó mucho y empezamos a preguntarnos si la víctima tendría hijos y cómo se sentirían esos hijos sabiendo que su padre había sido asesinado por error", confiesa Popkhadze. De ahí salió el guion que explora las decisiones, miedos y deseos de los dos hijos y su madre. "Religión, violencia y familia, esas son las claves de la película: un hermano representaría la religión, otro hermano, la violencia y la madre representaría la familia, con esa insistencia de que pase lo que pase en la familia, debemos querernos. En el film vemos cómo esos tres aspectos se cruzan constantemente y entran en conflicto", añade.

Con el guion comenzó un trabajo que se ha extendido durante cinco años. Además de Hill, el reparto cuenta con conocidos actores franceses como Nicolas Duvauchelle, la Shugliashvili, Denis Lavant, Finnegan Oldfield o Sandor Funtek, entre otros; un reparto de altura y nada habitual para la ópera prima de un director. "El primero en unirse al reparto fue el actor Denis Lavant y eso fue muy positivo para la película. Hemos conseguido contar con actores con gran experiencia y eso es porque confiaron en el guion", explica Popkhadze.

Niza es una protagonista más de la cinta y quizás el recurso más potente de Popkhadze para cuidar al detalle este thriller. "Justin Vaudaux, el director de fotografía, y yo queríamos jugar con el contraste en las tomas exteriores e interiores; la luz y la oscuridad. Las escenas exteriores son en espacios abiertos, luminosos, el espectador casi puede sentir el calor de Niza. Las escenas interiores se han grabado en espacios muy reducidos, casi claustrofóbicos, en los que la única luz proviene de una bombilla solitaria", detalla Popkhadze, y concluye: "Niza, como San Sebastián, es una ciudad de postal. Pero detrás de las puertas de estas ciudades de postal también sucede el drama".



IÑAKI LUIS FAJARDO

Akaki Popkhadze.

*Brûle le sang / In the Name of Blood* se estrenó el sábado por la noche en un K2 abarrotado que ovacionó al director y a parte del elenco que también ha viajado a San Sebastián para recibir la respuesta del público, algo que, en palabras del Popkhadze, "nos ha estresado mucho, teníamos ganas de saber qué les parecía la película a los espectadores, y verlo rodeados de 600 de ellos en una sala tan bonita, fue muy imponente, pero tanto los actores como yo estamos muy contentos y emocionados". Hoy lunes a las 20:15 es la última oportunidad de ver esta película en las salas de cine donostiarras.

STARS AND THE MOON

# Yongkang Tang: "Film hau film txinatarren guztiz kontrakoa da"

I.M.

Yongkang Tang (Shandon, Txina. 1983) zuzendaria poz pozik jarri zen bere filma *Stars and the Moon* New Directors sailean egokitu zutenean. Batetik, Zinemaldian bere lehenengo aldia delako, eta bestetik, Donostiako sukaldaritza probatzeko irrikitan zegoelako. Eta atzo, filma estreinatu aurretik itsaskiak eta frijituak jatera joan zen.

Tang, Argazkilaritza eta Komunikazioa ikasi eta Zinema-masterra egin zuen Txinako Unibertsitatean. Bere ikasketak amaitu orduko, bere lehen film luzean lan egiten hasi zen, *Walking in Darkness* (2019). "Nire lehen lanean gai filosofiko bat jorratu nahi izan nuen eta gauza bitxi bat gertatu zen: Txinan ez dute gogoko gai filosofikoak eta ez zuen kritika onik jaso. 'Kaka' bat zela ere esan zuten", txantxetan ari da zuzendaria. "Baina gero Rotterdamgo zinemaldi-jaialdian estreinatu nuen eta Rotterdamen, berriz, izugarri gustatu zitzaien. Izugarri!".




PABLO GÓMEZ

Bere bigarren film luzerako, beraz, gai filosofikoa kentzea erabaki zuen eta istorio samur bat aurkezten digu galdera hau erantzuteko: Nondik gatoz? *Stars and the Moon* filmean, Xingxing deitutako mutila ezagutzen dugu (datua: Xingxing izarra esan nahi du). Xingxing mendi-herri urrun bateko ikaslea da; mutikoak zeruan estralurtarrak daudela imajinatzen du eta ahal duen modu guztietan ikusten saiatzen da, bizilagunen eszeptizismoa gorabehera. Bere anaia obsesibo Yueliangek baino ez dio laguntzen haurrak nahi duena egia bihur dadin. Bilaketa horretan, Xingxing denetarik sufritzen du: *bullying*, aitaren haserrea, lagunen irribarreak… Baina Xingxingek itxaropena ez du inoiz galtzen, eta bere jarraikitasuna ikusleengana iritsiko da istorio samur batean.

Zineman ikusiko dugun filma ez dator bat zuzendariaren jatorrizko gidoiarekin. "Ez nuen espero pelikula hau horrela ateratzea. Nik oso gidoi luzea eta zehatza idatzi nuen, baina filmatzen hasi nintzenean konturatu nintzen ezingo nuela jarraitu", gogoratzen du Tang. "Aktore profesionalak ez diren haurrekin filmatu genuen. Kasting handi bat egin nuen, hiriko bizimodua gutxien ezagutzen zuten haurrak aurkitzeko. Eta, noski, filmatzen hasi genuenean, haur horiek ez zuten nik eskatzen nien ezer egiten". Barne-krisi baten ondoren, jarduteko askatasuna ematea erabaki zuen zuzendariak, eta orduan hasi ziren gauzak ateratzen. "Konturatu nintzen haurrek errealitatea balitz bezala ari zirela. Nik ahalik eta gehien ezkutatzen nuen kamera ez oztopatzeko, eta haiek hainbeste sartzen ziren paperean, non, adibidez, borroka bateko eszena bat bazegoen, benetan borrokatzen zuten".

Haur horiek aurkitzea ez zen erraza izan: Tangek mila ume elkarrizketatu zituen hogei egunetan. Eta lan-metodo zehatz hori arlo guztietara eramaten du. Kokapenak aurkitzeko, zehazki filmean agertzen den mendi txinatar herrixkan, hamar mila kilometro baino gehiago egin zituen.

Lan honen emaitza ikusiko dute Zinemaldiaren ikusleek. *Stars and the Moon*, berotasunez, itxaropenez eta argiz betetako filma da, eta seguru bere protagonista, Xingxing, ikusleen bihotzetan geratuko da betirako.